

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2523

733/2020 EBAZPENA, ekainaren 18koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ramón Herrería Laherrán jauna hautatzen baita Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko zuzendari mediko lanpostua betetzeko.

Aztertua izan da Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko Medikuntza zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren maiatzaren 21eko 341/2020 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2020ko maiatzaren 26ko EHAA (101. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Haren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ramón Herrería Laherrán jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ramón Herrería Laherrán jauna Osakidetzako Santa Marina Ospitaleko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2020ko ekainaren 22tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.